



AZKEN ARNASA EMAN NAHI NUKE



Doinuaren sortzailea: Benito Lertxundi.

Bertso honen egilea: Jon Maia (1972 Urretxu, Gipuzkoa).

Bertsoaren berri

Jon Maiak “Itsasoari begira” sortan, Euskal Herriari buruzko gogoetak jaso zituen. Bertso hau, sortako azken bertsoa da.

Kantua Benito Lertxundik plazaratu zuen “40 urtez ikasten egonak” CDan (Elkar, 2005).

Sebastian Lizasoren bertsoari keinua

“Azken arnasa eman nahi nuke itsasoari begira” esaldia Sebastian Lizasok kantatu zuen 1989ko Txapelketa Nagusiko finalean, kartzelako (edo egungo ganbarako) lanean. Halaxe zion gaiak: “Bizitza guztia itsasoan eman duzu: Gaur egun ohetik mugitu ezinez zaude. Leihotik sartzen zaizu itsasoaren olatu hotsa”. Azken bertsoa eta bertsoaldia errematatzeko kantatu zuen Lizasok “Azken arnasa eman nahi nuke itsasoari begira”.

Azken arnasa eman nahi nuke
eguna hiltzen **ari da**
azken arnasa eman nahi nuke
bertsoak entzuten **dira**
azken arnasa eman nahi nuke
kantari nator **herrira**
azken arnasa ematen dugu
eguzkitik **eguzkira**
azken arnasa eman nahi nuke
itsasoari **begira**.

